



## GORPUTZEZ KANPOKO TALKA-UHINEN BIDEZKO LITROTIZIA

---

Litrotiziaren printzipio fisikoa presio-uhinak erabiltzean datza talka-uhin deitzen direnak. Uhin horiek sorgailu elektromagnetiko bidez sorzen dira eta ur kuxin bidez sartzen dira azalera arte eta hortik sartzen dira Kalkulura edo harrira arte.

Harria lokalizatzen da X izpi bidez. Zu haurdun bazaude edo egon zaitetzkeela uste baduzu, proba egin aurretik adierazi beharko duzu.

Tratamenduaren iraupena neurri handi batean harriaren araberakoa izango da, haren kontsistentzia eta lokalizazioaren arabera. Batez beste probak 60 bat minutu irauten du.

Behin proba egin ondoren Eguneko Ospitalera itzuliko da, eta bertan suspertzen denean, alta emago zaio, betiere etxeratzeko ardura hartuko duen pertsonaz lagundurik badoa.

Gomendio oharrak, mediku txostena eta jarraitu beharreko tratamendua eta bere urologoarekin hitzordua emango zaizkio.

Tratamenduaren hurrengo egunetan koliko erako minak ager daitezke. Min gogorra izanez gero eta ohiko analgesikoekin baretzen ez bada, jo ezazu Larrialdi zerbitzuetara.

Hotzikarak edo sukarra agertuz gero tratamenduaren hurrengo egunetan, jarri iezaiozu arreta berezia, gernu bideen infekzioa adierazi baitezake. Kasu horretan, joan zaitetz Santiago AUO egoitzako Larrialdi zerbitzuetara ahalik eta azkarren.

